

HONDARRIBIKO TOKIKO AGENDA 21EN IRAUNKORTASUNERAKO I.EKINTZA PLANA

Hondarribiko udalbatzak onartutako dokumentua



2009-03-12

HONDARRIBIKO IRAUNKORTASUNERAKO I . TOKIKO EKINTZA PLANA

2008. urtean zehar Hondarribiko Agenda 21en udal mahai teknikoetan nahiz Herritarren Foroan parte hartu duten eragileek egindako lanari esker, Hondarribiko Iraunkortasunerako I. Ekintza Planaren zirriborroa osatu zen.

Ekintza Plana, 7 lerro estrategikoz osatuta dago. Horiek dira, hain zuzen ere, datozen 4-5 urteetan udalerririk tokiko garapen iraunkorraren bidean aurrerapausoak emateko finkatu diren helburu nagusiak:

1. Tokiko Ekonomia bizia eta iraunkorra sustatzea.
2. Biztanle guztien bizi kalitatea eta gizarte ongizatearen hobekuntza bultzatzea.
3. Udaletxeak tokiko garapen iraunkorraren aldeko jarrera eredugarria bultzatzea.
4. Hirigintza eredu iraunkor bat diseinatzea eta planifikatzea.
5. Biztanleriaren mugikortasun eta irisgarritasun beharrak iraunkortasun irizpideak aintzat hartuz asetzea.
6. Udalerriko natura ingurunea babestea eta bere baloreak ezagutzera ematea (bioaniztasuna eta paisaiaren babesa).
7. Hiri ingurumenaren kalitatea handitu eta natur baliabideen kudeaketa iraunkorra sustatzea.

Aipatu ildo estrategikoak lortzeko (alegia, Planaren helburu estrategikoak), Planeko helburu horietako bakoitza jarduera programez eta ekintza zehatzez osatuta dago.

Era berean, 2008ko azaroan eta abenduan antolatutako Herritarren Foroaren bileretan adostu zen Ekintza Planean barneratutako ekintzen lehentasun maila. Beraz, Planaren ekintza bakoitzari lehentasun maila bat esleitu zaio; altua, ertaina edo baxua hain zuzen. Ekintza Planaren ekintza bakoitzaren ondoan, 1 zenbakiz, lehentasun altua, 2 zenbakiz, lehentasun ertaina eta 3 zenbakiz, lehentasun baxukoak diren zehaztu da.

Herritarren Foroak 2008ko abenduaren 10ean adosten amaitu zuen Ekintza Planaren zirriborroak eta partaideek finkatutako lehentasunak Udalak aztertu eta berrikusi ditu (bai gobernu taldeak zein oposizioko taldeek ere).

Deskribatutako pausoen emaitza bezala, ondorengo orrietan jasotzen da Hondarribiko Iraunkortasunerako I. Ekintza Plana, lehenik 2009ko otsailaren 18ko bileran Herritarren Foroari aurkezten zitzaiona, eta ondoren, 2009ko martxoaren 12an, Hondarribiko Udaleko udalbatzak onartu duena.



L1. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA SUSTATZEA		LEHENTASUN MAILA
P 1.1. Tokiko enpresen lehiakortasuna bultzatzea eta bertako enpresak sortzeko neurriak garatzeko programa		
E 1.1.1. Hondarribiko Puntalean enpresa berritzaileen Enpresa Gunea sortzea		3
E 1.1.2. Enpresen arteko elkargunea sortu, ezarrita dauden enpresen arteko ekintzen koordinazioa eta sare-lana bultzatzeko		3
E 1.1.3. Bidasoa Biziriken ekimenez, ideia berritzaileak enpresetan ezartzea sustatu, honetarako beharrezko aholkularitza eskainiaz		3
E 1.1.4. Eskualdeko web orri baten bidez, enpresek jarduera ekonomikoak martxan jartzeko erabilgarri dauden lokalen berri ematea		2
E 1.1.5. Eskualdeko enpresek eskaintako zerbitzuak eta produktuak jasoko dituen prestigio katalogoa lantzea		2
E 1.1.6. Eskualdeko enpresen sorrera bultzatuko duen urteko azoka antolatzea		3
E 1.1.7. Eskualdeko enpresen erabilerarako onuragarria izan daitezkeen datu sozio-ekonomikoen elkar trukea eta difusioa sustatzea ("Erabat" Bidasoako Hiri Behatokia sustatu; eskualdeko errealitateari buruzko informazio iturri modura, eta baita, eskualdeko arlo sozio-ekonomikoko erabakiak hartzen lagun dezakeen tresna moduan ere, "Urban Audit" behatokia Hondarribiko Udalaren parte hartzea bultzatu, ...)		3
E 1.1.8. Eskualdeko kontratisten eta subkontratisten mugaz gaindiko katalogoa sortu		3
P. 1.2. Sortutako enpleguaren kalitatea eta kantitatea eta aukera berdintasuna sustatzeko programa		
E 1.2.1. Irungo Anaka auzoan <i>Espazioa</i> izeneko bulegoa irekitzea (Bidasoa Bizirik enplegua bultzatzeko eta heziketa hobetzeko sortutako bulegoa) eta Parisekin elkarlanean Ogibide Hirien Mundu Sarean parte hartzea sustatzea		3
E 1.2.2. Enplegu esparru berrietan lanbide prestakuntza martxan jartzea		3
E 1.2.3. "Emakumeen eguneroko bizitzarako autoenplegurako programa"ri jarraipena ematea		3
E 1.2.4. Udalak azpikontrataturako langileria egoera aztertzea, lan baldintza duinak izan ditzaten bermatuz		3
E 1.2.5. Hondarribian egon daitekeen murgildutako enpleguari buruzko ikerketa bat egin		3
E 1.2.6. Hondarribian autonomo moduan lan egiten duten pertsonen zein sektoretan lan egiten duten ezagutzeko ikerketa bat egin		3
E 1.2.7. Hondarribitik kanpo lan egiten duten herritarrek zein udalerritan eta zein sektoretan lan egiten duten ezagutzeko ikerketa aurrera eraman		3
E 1.2.8. Hondarribiko ekonomia sektoreen arteko desorekaren inguruko azterketa bat aurrera eraman horretarako iraunkortasun irizpideak aintzat hartuz		3
P 1.3. Sortutako enpresekin lankidetzan aritzea jardunbide korporatibo egokiak sustatu eta ezartzen laguntzeko programa		
E 1.3.1. Hondarribiko enpresetan jardunbide korporatibo egokien gaiaren inguruan informazioa zabaltzeko kanpainak antolatzea		3
E 1.3.2. Hondarribiko Udalaren kontratazio publikoko pleguetan gizarte klausulak progresiboki txertatzen joatea		1
E 1.3.3. Gizarteratze eta gizarte ekonomia enpresen sorrera bultzatu		3



L1. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA SUSTATZEA		LEHENTASUN MAILA
P. 1.4. Tokiko turismo iraunkorra sustatzeko programa		
E 1.4.1. Goiko Errotako natura interpretatzeko gunea martxan jartzea, udalerriko natur ondarea herritarren zein turisten artean ezagutzera emateko asmoz		1
E 1.4.2. Jarduera ezberdinen bidez turismo berdea sustatzea: <ul style="list-style-type: none"> - Ingurumen heziketa programa baten bidez Hondarribian kokatutako natur intereseko guneen zabalkuntza - Txingudiko badian zehar oinezko eta bizikletaz ibiltzea sustatzeko balio izango duen liburuxkaren argitalpena. 	1	
E 1.4.3. Hondarribiko historiaren interpretazio gunea eraiki eta martxan jarri, udalerriko ondare historiko eta kulturala ezagutzera eman eta potentziatzeko		2
E 1.4.4. Foru Aldunditik martxan jarri nahi den kostako ibilbideen proiektua udal mailatik bultzatu, jarraipena egin eta Aldundiarekin koordinatu		3
E 1.4.5. Mendiko bideen udal programari jarraipena eman eta ondoren herritarrei komunikatu (ekintza honek erlazioa du 6.1.5 ekintzarekin)		2
E 1.4.6. Hondarribia "Erdi aroko hirien sarea"ko kide izanik, proiektuari jarraipena eman, produktu turistiko berriak sorraraziz		3
E 1.4.7. Bertako artista kopuru ugaria dela eta, udalerrian sortutako artea sustatzea		3
E 1.4.8. Herri arrantzalearen izaera sustatzea		3
E 1.4.9. Alde zaharreko sustapen plana diseinatzea, turismoaren ikuspuntutik erakargarria izan dadin		1
P 1.5. Udalerrian sortutako produktuen kalitatea bultzatu eta horien inguruko promozioa egiteko programa		
E 1.5.1. Hondarribian ekoizten diren produktuak identifikatu eta ondoren produktu horien ezaugarriak eta onurak ezagutzera emateko asmoz, horien inguruko komunikazioa indartu; hegal motzari buruzko dibulgazio jardunaldiak antolatuz, eta abar.		3
E 1.5.2. Hondarribian antolatzen diren udalerriko produktuei buruzko feriak egiten jarraitu eta horien presentzia indartu		2
E 1.5.3. Hondarribiko nekazal produktuen eskaintza eta eskaera aztertu, tokiko nekazal eta abeltzainen produktuez osatutako merkatu baten ezarpena bideragarria den ziurtatzeko eta hala bada, martxan jartzeko		1
E 1.5.4. Udalerriko turismo produktuekin batera, Jaizkibel, Txingudi eta udalerriko bestelako natur gune zein natur baliabideei balorea eman asmoz, turismo produktu bereziak sortu. Produktu horiek, besteak beste, honako natur baloreekin edo mezuekin harremana izan dezakete: <ul style="list-style-type: none"> - Mehatxatutako fauna, - Tradizioari lotutako paisaia, - Txingudiko padurak Gipuzkoako heze gune garrantzitsuenak direla, - Xendazaletasuna 	3	
P. 1.6. Lehen sektorearen sustapen ekonomikorako eta babeserako programa		
E 1.6.1. Nekazal lurra babesteko neurriak (Nekazaritza eta Basoak Antolatzeko Lurralde Arloko Plana) barneratu Plan Orokorraren osaketan		2
E 1.6.2. Herriko hezkuntza zentroekin elkarlanean, landa inguruneke balore positiboak zabaldu		3
E 1.6.3. Nekazal lurren inbentario bat egin		1
E 1.6.4. Hondarribiko nekazarien artean nekazaritza ekologikoa sustatu		3



L1. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA SUSTATZEA		LEHENTASUN MAILA
P. 1.7. Udalerriko merkataritza sektorea indarberritzeko programa		
E 1.7.1. Hondarribiko merkataritza indarberritzeko plana diseinatu eta bertako merkataritza suspertzeko finkatutako neurriak abiarazi		2
P. 1.8. Dibertsifikazioa bilatuz, lurzoru behar txikia eskatzen duten eta balio erantsi altua duten ekonomia jarduerak sustatzea		
E 1.8.1. Aisialdira zuzendutako ekintzak bultzatzen dituzten jarduera ekonomikoak sustatu		3
E 1.8.2. Zubietako lurretan teknologia berriak, garbiak eta berritzaileak bultzatzen dituzten enpresa ekimenak sustatu		3
E 1.8.3. Bertako gremioen ogibidea gal ez dadin, horiek kokatzeko tokiak aurkitzeko bideak martxan jarri		3
P. 1.9. Lana, bizitza pertsonala eta familia bizitza kontziliatzen laguntzeko programa		
E 1.9.1. "Gertu: egunero merkatua sortuz" eta "Bultzatu" programaren baitan kontziliazioa bultzatzeko eskaintzen diren produktuak ezagutzera eman, prestakuntza eskaini eta kontziliazioaren onurak ezagutzeko ekintzak aurrera eraman		3
E 1.9.2. Hirugarren sektorean kontziliazioa errazte aldera, aipatu sektorearen kontratazioari buruzko ikerketa bat egin, ondoren enpresariei zein langileei ordutegien inguruko informazioa emateko (lanaldi erdiaren onurak, eta abar. kontziliazioa erraztu asmoz)		3
E 1.9.3. Gizarte erantzukizun korporatiboa eta familia bizitza, lan bizitza eta bizitza pertsonalaren kontziliazioa praktikan jartzen duten enpresak publikoki ezagutaraztea		2



L2. BIZTANLE GUZTIEN BIZI KALITATEA ETA GIZARTE ONGIZATEAREN HOBEKUNTZA BULTZATZEA		LEHENTASUN MAILA
P 2.1. Behar gehien duten biztanleen egoera ekidin eta arintzeko neurriak garatzeko programa, helburu horretara bideratutako egitasmoen etengabeko hobekuntza bultzatuz		
E 2.1.1. Gizarte eragileen arteko harremana indartu eta lankidetzaz/elkarlanerako harremanen sarea hobetzea		3
E 2.1.2. Prebentzio Komunitarioko Plan berria barneratutako ekintzak aurrera eramanez		3
E 2.1.3. Pobreziaren mugan egon daitezkeen herritarren egoera aztertu		1
P 2.2. Udalerriaren aukera berdintasuna eta elkarbizitza baketsua sustatzeko programa		
E 2.2.1. Gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako udal plana berrikusi, eta beharrezkoa dela ondorioztatuz gero, plan berria diseinatu eta martxan jarri		1
E 2.2.2. Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko bidean herri mailan kontzientziatze kanpainak antolatu, lehenik udalak enpresa eredu garriekin aliantzak bilatuz		2
E 2.2.3. Aukera berdintasuna bizitzako arlo eta sektore ezberdinetan lantzeko eta aurrerapausoak emateko asmoz, beharrezkoak diren bideak jorratu (eskola mailan, herriko jaietan, lan munduan, eta abar.)		1
E 2.2.4. Hondarribiko biztanleria etorkinaren errealitatea ezagutzeko ikerketa bat aurrera eramanez aukera berdintasunaren bidean aurrerapausoak emate aldera		2
P 2.3. Etxebizitza politika iraunkorra garatu eta bermatzeko programa		
E 2.3.1. Muliatego etxebizitzaren promozioan gizarte alokairuaren presentzia bermatu		1
E 2.3.2. Presa-Damarriko etxebizitzaren promozioan gizarte alokairuaren presentzia egotea aztertu eta bermatzeko ahalegina egin, Muliatego esperientzia kontuan izanik		1
E 2.3.3. Etxebizitza publikoen eta tasatuaren promozioetako pleguetan gizarte aldagaia barneratu, horretarako aurrez Hondarribiko familia egiturari buruzko ikerketa egin behar delarik etxebizitzaren tipologia zehaztu baino lehen		1
E 2.3.4. Etxebizitza eskatzen duten familien ezaugarriei buruzko azterketa egin		1
E 2.3.5. Hondarribian hutsik dauden etxebizitzaren inguruko ikerketa egin		2
E 2.3.6. Gizarte alokairua etorkizuneko apustu eta aukeratzat hartzea, horretarako, aurrez alokairuaren inguruko ikerketa bat aurrera eramanez		1
P 2.4. Hezkuntza zerbitzuen eta hezkuntza ekipamenduen hobekuntzarako programa		
E 2.4.1. Loraitzeko haurtzaindegia eraiki eta martxan jartzea		1
E 2.4.2. Muliatego eremuan hezkuntza ekipamendu egokia martxan jartzea, horretarako Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarekin koordinatuz		1
P 2.5. Biztanleen osasuna babestu eta osasun zerbitzuen hobekuntza sustatzeko programa		
E 2.5.1. Osasun zentroaren handitzea gauzatzeko beharrezko koordinazioa lanak aurrera eramanez Osakidetzarekin		1
E 2.5.2. Osakidetza Hondarribiko mediku espezialisten eskaera mailaren inguruko ikerketa bat egitea eskatzea		3



L2. BIZTANLE GUZTIEN BIZI KALITATEA ETA GIZARTE ONGIZATEAREN HOBEKUNTZA BULTZATZEA	LEHENTASUN MAILA
E 2.5.3. Bidasoako Ospitalera doan garraio publikoaren eskaintzari lotutako hobekuntza posibleak aztertu beste erakunde eskumendunekin elkarlanean	2
E 2.5.4. Herrian amatasun zerbitzua eta beilatokia ezartzeko aukerak aztertu (beilatokiari dagokionez, hileta zibila egiteko toki aproposa egokitu eta era erlijiosoegi begira, hileta erlijio ezberdinek erabiltzeko aukera eman)	2
P 2.6. Hondarribiko hirugarren adineko pertsonen bizi kalitatea hobetzeko programa	
E 2.6.1. Hondarribiko hirugarren adineko pertsonen beharrak ase eta Betharramen 3. adinekoentzako egoitza eta eguneko zentroa jartzea	1
P 2.7. Gazteria osasuntsu eta aktibo bat sustatzeko programa	
E 2.7.1. Prebentzio Komunitarioko udal zerbitzutik antolatutako bizitzeko era osasuntsuak sustatzeko ekintzak egiten jarraitu eta etengabeko hobekuntza sustatu	3
E 2.7.2. Gizarte Ongizate Saitetik aurrera eramaten diren jardueren jarraipena egin eta jardueren hobekuntza bultzatu	3
E 2.7.3. Gazteriari zuzendutako ekimenak bultzatu, horretarako gazteen arteko lankidetzak/elkarlan sare sendo bat sortuz eta autogestioa bultzatzeko pausoak eman	2
E 2.7.4. Gazteei zuzendutako ikerketa bat aurrera eraman (aisialdi ohiturak, udal zerbitzuen erabilpena, autogestio moduan funtzionatzen al duten, etab., bezalako alderdiak ezagutzeko asmoz)	2
P 2.8. Udalerriko kultura ekipamenduen eskaintza hobetu eta kultura jardueren etengabeko hobekuntza sustatzeko programa	
E 2.8.1. Arma plazako Historiaren Interpretazio Gunea eraiki (1.4.3 ekintza bera)	3
E 2.8.2. Musika Eskola berria eraiki eta martxan jartzea	2
E 2.8.3. Herriko kultura beharren inguruko azterketan oinarrituz, auditorioa eraiki beharra dagoen eta zein ezaugarri izan beharko lituzkeen jakin, betiere, eskainiko diren ekimen kulturalen beharretara egokitua izan behar duela kontuan hartuz	2
E 2.8.4. Egungo udal liburutegiaren espazioaren handitzea	2
E 2.8.5. Herriko kultur programazioan herritarrek ekintza proposamenak egitea sustatzea	3
E 2.8.6. Gazteentzat interesgarria den informazioa udal liburutegian ere egotea (beken ingurukoa, kulturari buruzkoa,...)	3
E 2.8.7. Historian zehar Hondarribiko biztanleek bereganatutako ezagutza eta ohiturak ezagutzera emateko asmoz, Udaletik belaunaldi-arteko jarduerak egitea bultzatu (udalerriko bizimoduak, jokoak, festak, ogibideak, musika, usadioak, e.a.)	2
P 2.9. Kirol ekipamendu eta kirol eskaintzaren etengabeko hobekuntza sustatzeko programa	
E 2.9.1. Amuteko kirolgunea martxan jarri	2
E 2.9.2. Bela-eskola martxan jarri	2
E 2.9.3. Herritar orori zuzendutako kirol ariketak egiteko guneak bultzatu herriko aisialdi guneetan	2
E 2.9.4. Beteranoen Kaian itsasontzi txikiak sartzeko gunea egokitu	1
E 2.9.5. Hondarribian praktikatzen diren kirolen eta kirol bakoitza praktikatzen duten pertsonen inguruko ikerketa bat gauzatu	2



L2. BIZTANLE GUZTIEN BIZI KALITATEA ETA GIZARTE ONGIZATEAREN HOBEKUNTZA BULTZATZEA	LEHENTASUN MAILA
P 2.10. Euskararen ezagutza eta erabilpena bultzatzeko programa	
E 2.10.1. Euskararen erabilera gazteen artean sustatzeko komunikazio kanpaina bateratuak bultzatu (hezkuntza zentroak-Udala, elkarteak-Udala, ... koordinatuz)	2
E 2.10.2. Euskarazko zerbitzuen gida bat diseinatu eta herrian zabaldu	3
E 2.10.3. Hondarribiko elkarteekin elkarlanean aritu, Euskararen normalizazio prozesuan aurrerapausoak emateko	3
E 2.10.4. Euskararen ezagutza eta erabilpen mailari buruzko azterketa soziolinguistikoa landu, hizkuntzaren erabilpena bultzatzeko ekintzen hobekuntza sustatzeko	2
E 2.10.5. Udal aldizkariak hasieran zuen euskarazko komunikazio kutsua berreskuratu	2
E 2.10.6. Hondarribiko euskalkiei buruzko multimedia materiala sortzea	2
E 2.10.7. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren eraketan eta ezarpenean herritarrek izan duten parte-hartzearen inguruko azterketa bat egin	1
E 2.10.8. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren nahiz Euskararen Erabilera Normalizatzeko Ordenantzaren inguruko betetze mailari buruzko azterketa bat egin	2
P 2.11. Kontsumo ohitura arduratsu eta iraunkorrek sustatzeko programa	
E 2.11.1. Kontsumo ohitura arduratsuen inguruko komunikazioa kanpainak egin	1
E 2.11.2. Natur baliabideei buruzko kontsumoari lotutako datu zehatzak herritarren artean ezagutarazi	2



L3. UDALAK TOKIKO GARAPEN IRAUNKORRAREN ALDEKO JARRERA EREDUGARRIA BULTZATZEA	LEHENTASUN MAILA
P 3.1. Herritarrekiko komunikazioa eta komunikazio gardentasuna hobetzeko programa	
E 3.1.1. Udalaren komunikazio baliabideak erabiltzea herritarren artean natur baliabideei buruzko informazioa zabaltzeko: <ul style="list-style-type: none"> - Hondarribiko web orrian ingurumen informaziorako atal bat sortu - Hondarribiko web orriko Agenda 21en atala berritu, Eskolako A21 ere bertan txertatuz - Hondarribiko udal aldizkarietan aldiro udalerriko Agenda 21en inguruko informazioa barneratu - Udal web orrian herritarrek beren ekarpenak egin eta Udalari bidaltzeko berezko atal bat sortzea 	1
P 3.2. Herritarrek udalerriko ekimenetan parte hartzea sustatzeko programa	
E 3.2.1. Herritarren parte hartze foroak sortzea udalerriko bizi kalitatearekin zerikusia duten gaien eztabaidarako, eta organo horrek izaera iraunkorra izatea	1
E 3.2.2. Eskolako A21 programaren baitan eskolen arteko foroak sortzea bultzatzea	3
E 3.2.3. Agenda 21en prozesua eta Eskolako A21en arteko koordinazioa bultzatzea	2
P 3.3. Herritarrak iraunkortasunaren baloreetan sentikortzeko, hezteko eta eragile guztien erantzukidetzak sustatzeko programa	
E 3.3.1. Udalak tokiko garapen iraunkorrarekin zerikusia duten komunikazio eta sentsibilizazio kanpainak antolatzea: <ul style="list-style-type: none"> - Jardunaldi bereziak antolatzea herritarrek garapen iraunkorrarekin zerikusia duten baloreak eskuratzeko eta barneratzeko - Udalerriko ondarearekin zerikusia duten berriztatze zein proiektu berrietan horiek gauzatu diren tokietara irteera gidatuak antolatu - Bidasoa bizirik-ekin elkarlanean enpresetan ingurumen jardunbide egokiak sustatu eta ingurumen kudeaketa sistemen inguruko informazioa zabaldu 	1
P 3.4. Tokiko Agenda 21 programa iraunkortasunaren aldeko etorkizuneko udal estrategia moduan finkatzeko eta udal-kudeaketan errotzeko programa	
E 3.4.1. Udal langileriari eta ordezkariak politikoa duten pertsonen zuzendutako formazio saioak antolatzea	2
E 3.4.2. Tokiko Agenda 21ekin zerikusia duten dokumentuak langile guztiek eskuragarri izateko tresna bat ezarri edo intraneta aprobetxatu	3
E 3.4.3. Ingurumena eta Agenda 21en udal batzordeak udal barruan Tokiko Agenda 21en aldiroko jarraipena egitea, barne partaidetza sustatzeko organo moduan	1
P 3.5. Garapen iraunkorraren bidean lan egiten duten beste udalerriri edo gobernu erakundeekin lankidetzak indartzeko programa	
E 3.5.1. Hondarribiko udala <i>Udalsarea 21</i> en sartzeko eta bertan partaidetza aktiboa izateko pausoak ematea	3
E 3.5.2. Eskualdeko gainerako udal eta entitateekin iraunkortasun prozesuak elkarren artean koordinatzea	1



L3. UDALAK TOKIKO GARAPEN IRAUNKORRAREN ALDEKO JARRERA EREDUGARRIA BULTZATZEA		LEHENTASUN MAILA
P 3.6. Udal eraikinetan eta udal jardueretan hondakinen kudeaketa egokia eta natur baliabideen kontsumo arduratsua eta eraginkorra sustatzeko programa (udal jardueran iraunkortasun irizpideak txertatzeko programa)		
E 3.6.1. Udal erosketa eta kontratazio jardueran iraunkortasun irizpideak txertatzen joatea (produktuak, lan kalitatea, Berdintasun Legearen sustapena, ...)		3
E 3.6.2. Baliabideen kontsumo handiena duten udal zerbitzuak identifikatzea ondoren horietan ingurumen kudeaketa sistemak ezartze aldera: <ul style="list-style-type: none"> - EEERekin elkarlanean (Energiaren Euskal Erakundea), Udaleko eraikinetan energiaren kontsumoari buruzko ikuskaritza aurrera eramatea - Udal instalazio ezberdinetan ura eta energiaren aurrezpenerako sistemak ezartzea 		1
E 3.6.3. Udalerriko biztanleen bizi kalitatean eragina izan dezaketen plan eta proiektuetan ingurumen irizpideak sartu, horretarako ingurumen teknikariaren parte hartzea bultzatuz		1
E 3.6.4. Udal eraikinetan hondakinen kudeaketa egokia egitea		3
E 3.6.5. Udal langileen artean ingurumen praktika egokiak zabaltzea		2
P 3.7. Bidezko garapenerako lankidetzaren sustatzeko programa (iraunkortasun globala sustatzeko programa)		
E 3.7.1. Herriko eta eskualdeko entitateekin elkarlanean, garapen iraunkorrekiko zerikusia duten proiektuak aurrera eramatea garapen bidean dauden herrialdeekin		2



L4. HIRIGINTZA EREDU IRAUNKOR BAT DISEINATZEA ETA PLANIFIKATZEA		LEHENTASUN MAILA
P 4.1. Herria neurrigabe handitzea eragozteko eta hiri dentsitate egokiak bultzatzeko programa		
E 4.1.1. Udaletik hirigintza eredu hedakor baten ordeaz (bereziki dentsitate baxuko etxebizitza eredu oinarritutakoa) eredu intentsibo baten alde lan egin (hau da, lurzoru behar gutxiago duten altueran eraikitako etxebizitza garapenak ahalbidetu)		1
E 4.1.2. Udalean lantzen diren plan, proiektu eta programa estrategikoetan, ingurumen aldagaia aintzat hartua izan dadin, Ingurumen Teknikariaren parte hartzea bultzatu		1
E 4.1.3. Hondarribian hutsik egon daitezkeen etxebizitzetarako buruzko errolda egin eta etxebizitza hutsen arazoari irtenbidea emateko martxan jar daitezkeen neurri ezberdinei buruzko azterketa egin		2
E 4.1.4. Sustapen pribatuko etxebizitzak familien egoerara egokitzeko araudia abian jarri		1
P 4.2. Lurzoruaren erabilera arrazionala eta mistoa sustatzeko programa, ekoizpen jarduera txikien eta etxebizitzaren arteko oreka lortzea bultzatuz		
E 4.2.1. Hirigintza sustapen berrietan Udaletik erabileren dibertsifikazioaren alde egin		2
E 4.2.2. Hirigune guztietarako irisgarritasuna hobetu		1
E 4.2.3. Auzo guztietan gizarte bizitza sustatzea, "lo auzoak" sortzea ekidinez		2
P 4.3. Dagoeneko existitzen diren Hondarribiko eraikinetan eraikuntza eta diseinu iraunkorrak barneratzeko eskakizunak ezartzea		
E 4.3.1. Eraikin publikoetan eguzki energiaren ezarpenaren inguruko azterketa egin		3
E 4.3.2. Eraikin publikoetan eguzki energiaren ezarpena arautuko duen udal ordenantza bat idatzi eta onartzea		3
E 4.3.3. Eraikin publikoetan natur baliabideen aurrezpena, energiaren eraginkortasuna eta hondakinen kudeaketa egokia bultzatzeko sistemak ezartzen joateko pausoak eman		3
E 4.3.4. Ingurumenaren hobekuntzaren ikuspuntutik <i>Eraikin Kodearen</i> edukia baino haratago doan udal ordenantza bat diseinatzeko aukera aztertu		3
P 4.4. Herriko kultur ondarea gordetzeko, berritzeko eta indartzeko programa		
E 4.4.1. Hirigune historikoaren kontserbaziorako jarduerekin jarraitu (harresien berreskurapena, e.a.)		2
E 4.4.2. Guadalupeko Gotorlekua suspertu eta bertan zabalkunde jarduerak antolatzea		2
E 4.4.3. Goiko Errota naturaren interpretazio gunea suspertu eta martxan jartzea (E 1.4.1 ekintzarekin harremana dauka)		3
E 4.4.4. Udaletik tokiko ondarearen katalogazioa bultzatu (natur ondarea, kultura ondarea, ondare historikoa,...) eta ondare horren babes sustatzeko aldera, ondarearen gaineko administrazioen kontrol eraginkorra eta herritarrenganako informazio baliabideak aurrera eraman: <ul style="list-style-type: none"> - Udalerriko ondarearen ezagutza herritarrei hurbildu eta ondarearen errespetua sustatzeko asmoz beharrezkoak diren dibulgaziorako baliabideak martxan jarri - Interes bereziko natur guneen babes eraginkorra bermatze aldera, motordun ibilgailuen sarrera kontrolatu eta posible den guztietan soilik oinezkoen sarrera onartu 		1
E 4.4.5. Arrantza sektoreari lotutako kultur ondarea indartzea (Karroaren berreskurapena,...)		2



L4. HIRIGINTZA EREDU IRAUNKOR BAT DISEINATZEA ETA PLANIFIKATZEA	LEHENTASUN MAILA
E 4.4.6. Alde zaharraren ondarea indartzea, bereziki auzo-bizitzaren biziberritzea eta alde zaharrak duen balio historikoa oinarritzat hartuz	3
E 4.4.7. Jaizkibel mendian dauden aztarnen balioa handitzea (estazio megalitikoak, esaterako)	2
E 4.4.8. Maddalen karrikako ondare historikoa ikertu, berreskuratu eta balioan jartzea bultzatu (Done Jakue bidea, tenplua, bide zaharren berreskurapena, e.a.)	1



L5. BIZTANLERIAREN MUGIKORTASUN ETA IRISGARRITASUN BEHARRAK IRAUNKORTASUN IRIZPIDEAK AINTZAT HARTUZ ASETZEA	LEHENTASUN MAILA
P 5.1. Autoaren erabilera arrazionala bultzatzeko programa	
E 5.1.1. Hondarribiko barne trafikoa eta mugikortasunaren ikerketa gauzatu, aurrez herritarren beharrak aztertuz eta aipatu dokumentua mugikortasun iraunkorreko irizpideekin osatuz (autoz egiten diren herri barruko desplazamenduetan, kanpotik udalerrira egiten direnetan eta Hondarribitik kanpora egiten direnetan iraunkortasun irizpideak eta neurriak martxan jartzea -hala nola; autoa partekatzeo sistemak, disuasio aparkalekuak eta garraio publikoaren eskaintza eraginkorra-).	1
E 5.1.2. Hirigune historikoaren peatonalizazioa gauzatu, motordun garraiobideen sarrera kontrolatuz eta garraiobide pribatuen sarrera ekiditeko pausoak emanez, beti ere, bertako bizilagunei zuzendutako alternatibak martxan jarritz	1
E 5.1.3. Hirigune historikora sartzeko motordun ibilgailuak ez diren desplazamendu era ezberdinen irisgarritasuna aztertu eta hobetu (oinezkoen, bizikleten, gurrpil-aulkien, ... irisgarritasuna)	2
E 5.1.4. Udaleko apustu eta erabaki politiko moduan, herritar guztiek udalerrian zehar mugitzeko garraio publikoaren, oinezko joan etorrien eta bizikletaren erabilpenaren alde egitea	1
E 5.1.5. Herritarrek garraio publikoa ohiko joan etorrietan erabil dezaten, Udaletik gaur egun dagoen garraio publikoaren inguruko zerbitzua ezagutzera eman (udal web gunearen bidez, garraio publikoari buruzko egutegi bat diseinatzuz, eta abar).	2
E 5.1.6. Hondarribiko goiko auzoetarako irisgarritasuna hobetze aldera, Udaletik, beste erakunde batzuekin elkarlanean, mikrobus zerbitzu bat abiarazteko aukerak ikertu eta herri-hausturako guneak gainditzeko bestelako neurrien ezarpena aztertu	2
P 5.2. Kalitatezko Garraio zerbitzu publiko eraginkorra eta erakargarria sustatzeko programa	
E 5.2.1. Udaletik, beste erakunde batzuekin koordinatuz, autobus bideak sortzeko aukera (bide horiek ere taxiek eta bizikletek erabiltzeko) eta udalerrira Irunekin tranbia bidez lotzeko aukerak aztertu	1
E 5.2.2. Herritarren beharrei erreparatuz, Udaletik garraio publikoaren zerbitzu berriak martxan jartzea bultzatu	1
P 5.3. Motordun garraiobideen aurrean garraiobide eta garraio azpiegitura alternatiboak eta iraunkorragoak sustatzeko programa	
E 5.3.1. Garraiobide eta garraio azpiegitura ez motordunen eskaintza eraginkorra eta erakargarria osatu, horretarako, besteak beste, honako jarduerak aurrera eramanez: <ul style="list-style-type: none"> - Udalerriko bidegorri sarea osatu eta hobetu, eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, eskualde mailako bidegorrien lotura gauzatu. - Bizikletaren erabilera sustatze aldera, beste udalerrira batzuetan martxan jarritako estrategiak eta ekimenak aintzat hartu, horiek etorkizunean Hondarribian aurrera eramateko aukerak aztertuz (bizikletaren mailegurako udal zerbitzua, bizikleten aparkalekuak, etab.) - Oinezko eta bizikleta bidezko eskolarako joan-etorriak sustatu, horretarako eskola zentroetara iristeko beharrezko segurtasun neurriak abian jarritz 	1



L5. BIZTANLERIAREN MUGIKORTASUN ETA IRISGARRITASUN BEHARRAK IRAUNKORTASUN IRIZPIDEAK AINTZAT HARTUZ ASETZEA		LEHENTASUN MAILA
P 5.4. Herritarrak mugikortasun iraunkorraren gaian hezteko eta sentikortzeko programa		
E 5.4.1. Udaletik bizikleta, garraio publikoa eta oinez egindako joan etorriak sustatzeko helburuarekin martxan jartzen diren neurri zehatzekin batera, herritarrei zuzendutako mugikortasun iraunkorrari buruzko hezkuntza eta sentsibilizazio jarduerak aurrera eraman		1
E 5.4.2. Eskolako Agenda 21 programa aprobetxatuz, eskoletan mugikortasun iraunkorraren gaia txertatzea, eskola-ekintzetan mugikortasun iraunkorreko irizpideak barneratuz		2
P 5.5. Biztanle guztien irisgarritasuna hobetzeko programa		
E 5.5.1. Hondarribiko landa eremuan bizi diren pertsonen mugikortasuna hobetze aldera zuzendutako jarduerak aurrera eraman		2
P 5.6. Udal ibilgailuetan eta udalerrian zerbitzua ematen duten garraio publikoko ibilgailuetan emisio kutsatzaile gutxiago igortzen dituztenak sustatzeko programa		
E 5.6.1. Udal zerbitzuek erabiltzen dituzten ibilgailuen ikerketa bat egin eta zenbait joan etorrietan udal langileek bizikleta elektrikoak nahiz motor elektrikoak erabiltzea sustatu (udaltzaingoa, eta abar.)		2
E 5.6.2. Udal ibilgailu parkerako ibilgailu berriak eskuratzeko garaian Udalak ingurumen aldagaia aintzat hartzea bultzatu (ibilgailu hibridoak, kontsumo eta gas isurpen kutsatzaile gutxiagoko ibilgailuak, eta abar. eskuratzeko aukerak baloratuz)		1



L6. UDALERRIKO NATURA INGURUNEA BABESTEIA ETA BERE BALOREAK EZAGUTZERA EMATEA (BIOANIZTASUNA ETA PASAIAREN BABESA)		LEHENTASUN MAILA
P 6.1. Dagokion antolamendu, kudeaketa eta kontrol tresnen bidez Hondarribiko lurretan kokatutako natur guneen babesa bermatzeko programa		
E 6.1.1. Jaizkibelgo BGLaren kudeaketa egokia gauzatzeko aldera, Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin jarduerak koordinatu eta erakundeen arteko elkarlana aurrera eramateko (Jaizkibelgo kudeaketa planaren zirriborroaren berrikuspena, interes komunitarioko eremuen babesa, e.a.), Udaletik Jaizkibelgo kudeaketa planaren idazketa, onarpena eta abiaraztea bultzatuz		1
E 6.1.2. Udaletik Hondarribian kokatuta dauden <i>Natura 2000 Sarean</i> barneratutako Jaizkibel eta Txingudiko BGLAak (Europako Batasuneko Garrantzizko Lekuak) KBE (Kontserbazio Bereziko Eremua) izenda daitezela bultzatu eta baita natur eremu horien Kudeaketa Planen idazketa zein onarpena ere		3
E 6.1.3. Txabolismoa eta legez kanpoko baratzak ekiditeko asmoz, Udaletik Hondarribian kokatuta dauden Txingudiko paduretan kokatutako eremuen antolaketa eta kontrol egokia bermatzeko beharrezko jarduerak aurrera eramanez, eta bertan dauden baratzak babestu eta baloratu ingurunea txukun eta antolatuta mantentzeko		2
E 6.1.4. Lur eremuak garbi mantentzeko aldera, landazabalean dauden baratzak babestu eta balioestea		3
E 6.1.5. Homologatutako bideen mantenua gauzatu eta oraindik homologatuta ez dauden bideen homologazio proposamena prestatu		3
P 6.2. Denboran zehar kaltetuta suertatu den natur ondarea berreskuratzeko programa		
E 6.2.1. Udalaren ekimenez Hondarribian kokatutako Txingudiko padurak babestera bideratutako jardueren zabalkuntza sustatu, babestutako eremuen lehengoratzeko lehenetsiz, beti ere, habitat eta espezie ezberdinak kontutan izanik, bertako biodibertsitatea bultzatzeko		1
E 6.2.2. Udalaren ekimenez Jaizkibel mendia eta Hondarribian kokatutako Txingudiko paduren eremuak lotzeko balio duen korridore ekologikoa sortu edo berreskuratzeko aukerak ikertzea (ekintza hau 6.4 programarekin ere lotura zuzena du; "Udalerriko natur inguruneari buruzko ikerketak bultzatzeko programa")		2
E 6.2.3. Jaitzubiako padura erditik zeharkatzen duen errepidea desagertzeko aukera baloratzeko beharrezko ikerketa aurrera eramanez		3
E 6.2.4. Jaitzubiako padurak ezagutzera eramanez		3
E 6.2.5. Jaizkibel mendiko habitat naturalen berreskurapena aurrera eramateko, Gipuzkoako Foru Aldundiari berreskuratzeko proiektuen idazketa egin dezala eskatzea (hariztiak, ameztiak eta sasiak bereziki)		3
P 6.3. Udalerriko natur ondareari buruzko ikerketak gauzatzeko eta natur ondarea osatzen duten balore eta osagaien gaineko errespetua sustatzeko programa		
E 6.3.1. Hondarribiko bioaniztasunari eta paisaiei buruzko ingurumen hezkuntza eta sentsibilizazio ekimenak aurrera eramanez (Eskolako Agenda 21 programaren baitan eskolekin batera antola daitezkeen ekimenak esate baterako)		2

L6. UDALERRIKO NATURA INGURUNEA BABESTEIA ETA BERE BALOREAK EZAGUTZERA EMATEA (BIOANIZTASUNA ETA PASAIAREN BABESA)	LEHENTASUN MAILA
<p>E 6.3.2. Hondarribian kokatutako ekosistema eta paisaia ezberdinei buruzko diagnosa gauzatu, horien gaineko analisia eta ekosistemen babesera nahiz hobekuntzara zuzendutako jarduerak aurrera eramanez:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Biodibertsitate inbentarioak aurrera eraman eta habitaten kontserbazio-egoera egokia bermatzera zuzendutako urteroko kudeaketa planak ezarri - Jaizkibeli lotutako natur baloreak ezagutu eta egunean jartzera bideratutako ikerketa eta azterlanak aurrera eraman, - Udalerrian kokatuta dauden erreken inguruko udal ikerketa bat gauzatu - Udalerriko akuiferoei buruzko ikerketa gauzatzea - Bertako basoen ezaugarriak kontutan izanik, udalerriko zuhaitzien katalogoa egin eta aipatu katalogoan babestutako zuhaitz moduan agertzen direnak Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorrean barneratu 	1
E 6.3.3. Hondarribian aurki daitezkeen espezie exotiko inbaditzaileen azterketa eta hauen erradikazioa bultzatzea	2
E 6.3.4. Babestutako natur gunetan egiten diren betelaren gaineko kontrol zorrotzagoa aurrera eraman	1
E 6.3.5. Txingudiko paduretaren egoten diren hegaztiengan aireportuak izan dezakeen eragina ezagutzeko ikerketa gauzatu	1
E 6.3.6. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, Udaletik Hondarribian aurki daitezkeen mehatxatutako espezien (bisoi europarra esaterako) inguruko Kudeaketa Planen buruzko informazio nahiz kudeaketa lanak sustatu	3
E 6.3.7. Hondarribian <i>Natura 2000 Sarearen</i> baitan barneratutako guneen arteko lotura bermatzeko, Jaizkibelgo eta Txingudiko BGLen arteko korridore ekologikoaren irudia hirigintza planeamenduan txertatu	3
P 6.4. Nekazaritza, abeltzaintza eta basoen kudeaketa iraunkorra bultzatzeko programa	
E 6.4.1. Hondarribian nekazaritza ekologikoko urteko feriak antolatzeke aukera aztertu	2
E 6.4.2. Hondarribian dauden nekazaritza ekologikoko ekoizleen eta sortzen dituzten produktuen inguruko aldiroko informazioa zabaldu herritarren sektore ezberdinen artean	3
E 6.4.3. Bertako nekazariari, nekazaritza ekologikoari buruzko prestakuntza ikastaroak eskaintzea	3
E 6.4.4. Nekazaritzan erabiltzen diren ongari kimikoen eta hauek erreketan eragin ditzaketen kalteak aztertzea	2
E 6.4.5. Basozaintza iraunkorraren aldeko politika definitzea, martxan jartzea eta bultzatzea	2
E 6.4.6. Abeltzaintza estentsiboak Jaizkibelen duen eragina aztertu eta sustapen iraunkorra bultzatzea	3
P 6.5. Udalerriko ur baliabideei lotutako ekosistemak babesteko eta berreskuratzeko programa	
E 6.5.1. Udalerrian kokatuta dauden erreken lehengoratzeko lortu eta balioa handitzeko jardueraren plan bat aurrera eraman	1
E 6.5.2. Udalerrian kokatuta dauden akuiferoen babesa bultzatzea	2



L7. HIRI INGURUMENAREN KALITATEA HANDITU ETA NATUR BALIABIDEEN KUDEAKETA IRAUNKORRA SUSTATZEA	LEHENTASUN MAILA
P 7.1. Udalerrian uraren zikloaren kudeaketa etengabe hobetzeko programa	
E 7.1.1. Lehorte garaian, natur baliabide honen hornikuntza bermatzeko asmoz, Jaizkibelgo ur hartuneen proiektua gauzatu	2
E 7.1.2. Hornikuntza sarea kontrolatze aldera, ur hornidura sare orokorraren handitze eta hobekuntza proiektuarekin aurrera jarraitu, horretarako besteak beste, honako jarduera aurrera eramanez: - Edateko ura tratatzeko plantara lotura duen biltegi berri bat eraikitzea Guadalupen, zeinaren bidez Hondarribiko auzo altuetako etxebizitzak uraren hornidura sare orokorrari lotuta geratuko diren	1
E 7.1.3. Hornidura sareko ur isuriak antzemateko eta presioa zein ur emaria neurtzeko puntuak ezartzeko asmoz, besteak beste, hornidura sarearen sektorizazioa aurrera eramatea	1
E 7.1.4. Udal instalazio eta zerbitzuetan uraren kontsumoari buruzko diagnostikoa egitea eta aurrezpen plan bat burutzea	2
E 7.1.5. Urari buruzko ingurumen hezkuntzako ekintzak zein sentsibilizazio kanpainak antolatzeke garaian, Udala eta Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitatearen arteko koordinazioa ahalbidetu. Adibidez, ur emariaren erreduktoreak banatu, ur isuriak kontrolatzen jakitea ahalbidetu herritarrei,...	1
E 7.1.6. Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitateak eskaintzen duen bisita gidatuen eskaintzari jarraipena eman	3
E 7.1.7. Udalak Mankomunitateari laguntza eskaintzea Ingurumenaren Mundu Egunari lotutako sentsibilizazio ekintza sorta antolatzeke orduan	3
E 7.1.8. Uraren saneamendu sarearen sektorizazio proiektuarekin jarraitu	3
E 7.1.9. Hondarribiko mendebaldeko eremuko drainatzeen proiektua aurrera eramatea	3
E 7.1.10. Akuiferoen eta iturrien, baita errekatxoaren inbentarioa ere egitea	3
P 7.2. Lurzoruaren kalitatearen ikerketa bultzatu eta baliabide honen hobekuntza sustatzeko programa	
E 7.2.1. Hondarribiko lurzoruaren kalitatearen inguruko ikerketak aurrera eraman, batez ere kutsatzaile potentzialak diren jarduerak ematen diren lurri erreparatuz	2
E 7.2.2. Kutsatuta egon litezkeen lurzoruak berreskuratu	3
E 7.2.3. Kutsadura kontrolatzeko neurri eraginkor gisa lurrak poluitzen dituzten enpresei zigor fiskalak ezartzea aztertu	2
E 7.2.4. Potentzialki poluituak egon daitezkeen lurzoruaren gaineko udal kontrol eraginkorragoa aurrera eraman lizentziak izapidetzeko unean batez ere	3
E 7.2.5. Hondarribiko nekazal lurretan erabiltzen den ongarriari buruzko ikerketa bat aurrera eraman, lurzoruaren kalitatean izan dezakeen eraginaren ikuspuntutik	3
P 7.3. Energiaren aurrezpena, erabilera eraginkorra eta energia berriztagarrien ekoizpena eta kontsumoa handitzeko programa	
E 7.3.1. Energia berriztagarriak dituzten eraikinen inguruko udal inbentario bat egin	3
E 7.3.2. Udal eraikin eta instalazio publikoetan progresiboki energia berriztagarriak jartzea	1
E 7.3.3. Herritarren artean energiaren aurrezpena sustatzera bideratutako sentikortze kanpaina berritzaileak eta jarraituak antolatu	2



L7. HIRI INGURUMENAREN KALITATEA HANDITU ETA NATUR BALIABIDEEN KUDEAKETA IRAUNKORRA SUSTATZEA	LEHENTASUN MAILA
E 7.3.4. Udal ordezkari politikoez zein teknikariek osatutako udal batzorde berezi bat osatzea udal barruan, zeinak natur baliabideen aurrezpenarekin harreman zuzena izango duen	3
E 7.3.5. Udal instalazioen funtzionamendu egokia kontrolatze aldera, Udaletik espezializatuta dagoen pertsonalaren kontratazioa aurrera eraman edo funtzio hori gauzatzeko udal arduradun bati prestakuntza eman	3
E 7.3.6. Instalazio eta ekipamendu publikoetan argi energia aurrezteko sistemarik egokienak ezartzea (eraikin berrietan eta progresiboki eraikin zaharretan ere)	2
<p>E 7.3.7. Tentsioaren egonkortzea errazten duten jarduerekin zein argiaren kutsadura desagerrarazten edo leuntzen laguntzen duten neurriekin aurrera jarraitu, eta argiteria publikoan kontsumo baxuko bonbillen instalazioa aurrera eraman. Ekintza hau, besteak beste, honako jarduera/eremuetan gauzatu litzateke:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Alde zaharra - Energiaren aurrezpenerako irizpideak aintzat hartuz, Gibeleta auzoko argiteria hobetzea - Argiteria publikoaren kudeaketa prebentiboaren programarekin jarraitu - Argiteria publikoan 150W erabiltzen dituzten bonbillak erabiltzetik 100W darabilten bonbilletara pasa, erosotasun bera eskaintzen dutenak eta gainera eraginkorragoak direnak 	2
P 7.4. Hiri hondakinen kudeaketaren etengabeko hobekuntza bultzatzeko programa	
E 7.4.1. Hiri hondakinen bilketa zerbitzuaren jarraipena egin, aurrez Udaletik sor daitezkeen proposamen edo iradokizunak aintzat hartuz	3
E 7.4.2. Eskumena duten erakundeen arteko koordinazioa eta elkarlana bultzatu hondakinen prebentzioa, berrerabilpena eta birziklapena sustatzeko antolatzen diren ekimenetan, urtero beharrezkotzat jotzen diren jarduera guztiak aurrera eramanez	1
E 7.4.3. Eskualderako aurreikusitako Garbigune berriak martxan jarri, horietako bat Hondarribian kokatutako egotea bultzatuz	2
E 7.4.4. Herriko zabor ontzien beharrak aztertu eta beharrezko den tokietan ezarri	3
E 7.4.5. Herriko zenbait gunetan txakurren kakak jasotzeko ontziak jarri	3
E 7.4.6. Atez-ateko gaikako bilketaren azterketa sakona egin	3
E 7.4.7. Hondakin organikoak kudeatzeko konpostajea martxan jarri	2
E 7.4.8. Jatetxe, taberna edo elkarte gastronomikoetan gaikako bilketa sustatu eta hauen inguruetan beharrezko gaikako zabor ontziak jarri	2
E 7.4.9. Etxeko olio erabiliaren bilketa zerbitzua eta olioaren birziklapena sustatu	3
E 7.4.10. Udal aldizkarian, gaikako bilketari buruzko informazioa txertatu	3
E 7.4.11. Dendariekin plastikozko poltsen erabilpenaren murrizketa kanpaina antolatu	3
E 7.4.12. Uren araztegitik eratorritako lohiak nekazal lurretan edo lorezaintzan erabiltzeko aukera aztertu porlanen fabriketan erre beharrean, eta bideragarria izango balitz, lohiak aipatu jardueretan berrerabiltzea sustatu	3
E 7.4.13. Portuko eremuan hondakinen gaikako bilketa hobetzea eta Jaizkibelgo kostako garbiketa lanen maiztasuna handitzea	3



L7. HIRI INGURUMENAREN KALITATEA HANDITU ETA NATUR BALIABIDEEN KUDEAKETA IRAUNKORRA SUSTATZEA	LEHENTASUN MAILA
P 7.5. Eraikuntza eta eraispén hondakinen kudeaketa hobetzeko programa	
E 7.5.1. Udaletik nahiz Mankomunitatetik Hondarribian sortzen diren eraikuntza eta eraispén hondakinen inguruko arazoa ikertu eta ekintzak koordinatu	1
E 7.5.2. Mankomunitatearen hondakinen ordenantza abiapuntutzat hartuz, hondakin mota hauen inguruko kontrolik gabeko isurketen inguruko zehapen espedienteak irekitzea bultzatu	1
E 7.5.3. Lurzoru ez hiritargarrían ematen diren lizentzien inguruko kontrol eraginkorragoa aurrera eraman	1
E 7.5.4. Kontrolik gabe eta legez kanpo botatzen diren obra eta eraispén hondakinei buruzko ikerketa bat aurrera eraman	3
P 7.6. Udalerrían sortzen diren hondakin arriskutsuen inguruko ezagutza bultzatu eta hondakin horien kudeaketa egokia gauzatzen laguntzeko programa	
E 7.6.1. Industria hondakin arriskutsuak sor ditzaketen enpresen gaineko kontrol jarduerak koordinatu	2
E 7.6.2. Herritarrei zuzendutako hondakin arriskutsuen kudeaketari buruzko prestakuntza kanpainak gauzatzea	2
E 7.6.3. Arrantzaleei zuzendutako hondakinei buruzko sentsibilizazio kanpainak gauzatzea	2
P 7.7. Airearen kalitate egokia bermatu asmoz, kutsadura atmosferikoaren gaineko ezagutza eta udal kontrola hobetzeko programa	
E 7.7.1. Udaletik Irunen kokatuta dagoen airearen kalitatearen kontrolerako kabinan jasotako datuei buruzko informazioa Eusko Jaurlaritzari eskatu (kabina airearen kalitatea neurtzeko sarearen baitan sartuta dago).	3
E 7.7.2. Udaletik airearen kalitateari buruzko informazioa zabaldu, horretarako komunikazio ekintza ezberdinak aurrera eramanez	3
E 7.7.3. Hondarribiko airearen kalitatea neurtzeko sistemak ezartzea, Eusko Jaurlaritzaren airearen kalitatea neurtzeko sarearen bidez edo Udalak gauzatutako neurketa zehatzen bidez	1
P 7.8. Udalerríko kutsadura akustikoa ezagutzeko, udal kontrola hobetzeko eta udalerríko kalitate akustikoa hobetzeko programa	
E 7.8.1. Zarataren inguruko legedia betearazteko neurriak aurrera eraman	3
E 7.8.2. Udalerríko zarataren mapa gauzatzea eta beharrezkotzat jotzen den udalerríko puntu zehatzetan zaratari buruzko ikerketak gauzatzea (hala nola: aireportuaren zaratari buruzko ikerketa eta inguruko biztanleen bizi kalitatearengan duen eragina)	1
P 7.9. Hiri ingurunearen kalitatea hobetzeko programa	
E 7.9.1. Uhin elektromagnetikoen neurketei buruzko ikerketa bat egin eta ondoren jasotako datuak herritarrei ezagutzera eraman	3
E 7.9.2. Erradiazio elektromagnetikoei buruzko udal ordenantza idaztea	3
E 7.9.3. Erradiazio/uhin elektromagnetikoei buruzko mapa baten diseinua	2
E 7.9.4. Hondarribiko ingurumenarekin zerikusia duten gaien inguruko komunikazio eta dibulgazio ekintzak aurrera eraman (hitzaldiak, mahai inguruak, e.a.)	2